

OSO GUNEKO ERAKASKERA.

1997-98ko IKASURTEA.

I ELHEKETA : ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA.

1. Zertako phiztu zuten si ttiki, ttiki hura?
2. Zertako apherila ez zen hain biribila?
3. Piarresek zer egiten zuen pottokekin?

Piarres II

UDABERRIA. 7

Burla zerbeit egin ere zioten maiteki bidcan. Bainan, gero, orok elgarrekin, arno-xuri on xorta bat lorietan edan zuten aphez-etxean, eta bakeak frango errexki egin ziren.

Piarresck, Oihanaldeko muthurretik, behatu zion berriz oraino Erreka-Luzetik heldu zen khe beltz itsusiari; eta, egun hartan, ongi buruan hartu zuen, zer kalteak ekar dezazken batzuetan, bazka berriaren jinarazteko phiztu den su ttiki ttiki batek. Non phiztu den jakiten ohi da; ez ordean non den geldituko, edo zer desmasiak eginik bazterretan!...

Apherila jina zen, eta ez (urthe hartan) hain biribila. Nchor guti zagon etxean... hila.

Gerezi ondoen gainean, pinpirinak idekitzera zoazin. Elhorri beltza, elhorri xuria geroxago, lore pullit pullit batzuz estali ziren; merxikak gorri gorria egin bazterretan. Kukua kantuz ari zen oihanetik; Piarresck zalu zalua miatu zuen bere moltsa... Eta diru zerbeit han kausiturik, hirri bat jin zitzaion ezpainetara: urthekeo diru bazukeela beraz etxean, erran zahar maitearen arabera. Eta hala hala, pottokaz leherra ez zena bethi heldu Zugaramurdiko gain hetara? Pottoka hetarik zonbeit ez zituena, berriki oraino, lephorainoko uretik hantxet iraganarazi, zubiaren zain guardak zaudelarik!... Bazterrak ere ez zirena oro xoragarri heldu, Oihanaldearen inguruan?... Bai, kantazak, kanta, kukua: *kuku, kuku!*

Ithurriak, ur-errekak, erasiaka heldu ziren mendiarri beheiti, xteriozko gauza maite maite batzu, negu luze hartako gauza maite batzu, *mur, mur, mur* elgarri salatuz.

Mahasti haintzurtean ari<sup>32</sup> ziren orotan, Ibarrarteko paretan, Xerrendan, Amotzen, Helbarronen, Ibarronen; eta gorri gorria egin ziren herriko mendi-paretak. Thomas, Piarres, Ganix karraskan hasi ziren hek ere Oihanaldeko kaskoan, bertzeak bezenbat izan beharrez.

III ADITZ IKASKUNTZA.

31. Ekar dezazken. 32. Idekitzera zoazin  
33. Guardak zaudelarik. 34. Jin zitzaion  
35. Diru bazukeela.

31. UKAN. Conj. à dble cplt. Potentiel. Présent

Objet sing.	Objet pluriel
Nik ukan dezaket = (je peux)	N. ukan ditzazket = (je peux)
Hik " dezakek(n) = (l'avoir)	H. " ditzazkek(n) = (les avoir)
Zuk " dezakezu =	Z. " ditzazkezu =
Harek " dezake =	H. " ditzazke =
Guk " dezakegu =	G. " ditzazkegu =
Zuek " dezakezue =	Z. " ditzazkezue =
Heik " dezaketete = etc.	H. " ditzazketete = etc.

32. JOAN. Aller - Indicatif.

Présent	Imparfait
Ni noa = je vais	N. mindoan = j'allais
Hi hooa = tu vas	H. hindoan = tu allais
Zu zootzi =	Z. zinoatzin =
Hura doa =	H. zoan =
Gu goatzji =	G. ginoatzin =
Zuek zoatzte =	Z. zinoatzten =
Hek doatzji = etc.	H. zoatzjin = etc.

32 bis. JOAN. Subjonctif Prés. Potentiel Présent • Imparfait

Ni noan = qui j'aïlle	N. noake = je peux aller	H. mindoaken = (je pourrais aller)
Hi hooan = que tu aïlles	H. hooake	H. hindoaken
Zu zoazjin = que vs aïllez	Z. zoazke	Z. zinoazken
Hura doan	H. doake	H. zoaken
Gu goazjin	G. goazke	G. ginoazken etc.
~ ik zoazten	Z. zoazkete	Z. zinoazketen
Hek doatzjin etc.	H. doazke	H. zoazken = ils pourraient aller

33. EGON = Rester - Indicatif

Présent	Imparfait
Ni nago = je reste	N. mindagon = je restais
Hi hago = tu restes	H. hindagon = tu restais
Zu zaude = vs restez	Z. zinauden = vous restiez
Hura dago =	H. zagor = il restait
Gu gaude =	G. ginauden =
Zuek zaudezte =	Z. zinaudezten =
Hek daude = etc.	H. zauden = etc.